


---

Año L urtea

N.º 92. zk.

2018



# CUADERNOS de Etnología y Etnografía de Navarra

SEPARATA

---

## Erronkaribarko etxe-izen euskaldunak

Josune AZNAREZ ALKAT

---

# Erronkaribarko etxe-izen euskaldunak

---

Nombres en euskera en las casas del valle de Roncal

---

Basque house names in Roncal valley

Josune AZNAREZ ALKAT

Euskal Filologian lizentziatua eta Euskal gaietan aditua  
josuneaznarez@gmail.com

Jasotze data: 2018/05/09. Behin-behineko onartze data: 2018/07/26. Behin betiko onartze data: 2018/09/18.

## LABURPENA

Artikulu honetan egileak Erronkaribarko etxeen izenak aztertzen ditu. 2018ko apirilean etxe-izen guztiak biltzen dituen liburu bat argitaratu zen. Liburu horretan oinarrituz eta beste zenbait artikulu, liburu eta web orrialde baliatuz, izen euskaldunen zerrenda eta sailkapena egiten du. Hauexek dira ondoriorik garrantzitsuenak: erronkarierak ibarreko etxeen izenetan bizirik jarraitzen du eta haien artean nagusi da.

**Gako hitzak:** Erronkaribar; oiconimia; etxeak; erronkariera.

## RESUMEN

En este artículo la autora analiza los nombres de las casas del valle de Roncal. En la primavera del año 2018 se publicó un libro que recoge todos los nombres de las casas. Basándose en dicho libro y utilizando otros artículos, libros y páginas web, realiza una lista y clasificación de los nombres en euskera. Estas son las conclusiones más importantes: el euskera roncalés sigue vivo en los nombres de las casas del valle y los nombres en euskera son más abundantes.

**Palabras clave:** valle de Roncal; oiconimia; casas; euskera roncalés.

## ABSTRACT

The author of this article analyses the names of the houses in Roncal Valley. In April 2018 a book was published, which comprises all the house names. Based on this book and using some other articles, books and websites, it lists and classifies the Basque names. These are the most important conclusions: the Basque dialect of *Erronkari* is alive in the names of the houses of the valley, and it is dominant among them.

**Keywords:** *Erronkari* valley; oiconimia; houses; Basque dialect of *Erronkari*.

1. SARRERA. 2. *ERRONKARIBARKO ETXEAK*. 3. ERRONKARIERA. 3.1. Definizioa. 3.2. Ezaugarriak. 3.3. Testigantzak. 3.4. Desagerpena. 4. ETXE-IZENAK. 5. ERRONKARIERA ETA ERRONKARIBARKO ETXE-IZENAK. 5.1. Burgi. 5.2. Bidankoze. 5.3. Garde. 5.4. Erronkari. 5.5. Urzainki. 5.6. Izaba. 5.7. Uztarroze. 6. ONDORIOAK. 7. ERREFERENTZIAK. 8. WEBGRAFIA.

## 1. SARRERA

2018ko apirilean Erronkaribarko etxeak liburua (Hainbat egile, 2018) argitaratu zen eta horren gaineko azterketa bat egitea erabaki nuen. Horren emaitza da artikulu hau.

Lehenik eta behin, Erronkaribarko etxeak liburuari buruz mintzatu naiz, proiektu hori nola sortu eta gauzatu zen azalduz.

Bigarrenik, erronkarierari buruzko informazioa eman dut; izan ere, Erronkaribarren hitz egiten zen euskalkia zenez, aztertu beharreko euskara horixe dela argi eta garbi dago. Gai horren harira, honako azpiatalak jorratu ditut: zer den, zein ezaugarri zituen, zein motatako testigantzak ditugun eta noiz desagertu zen.

Hirugarrenik, Etxe-izenak atala garatu dut. Atal honetan haiek zer diren eta non ematen diren azaldu dut.

Laugarrenik, aurreko bi atalak elkartu ditut; hau da, erronkariera eta Erronkaribarko etxe-izenak. Herriz herri eta grafikoen bidez landu dut, besteak beste, euskarazko etxe-izenak zeintzuk diren eta zer adierazten duten.

Azkenik, azaldutako guztiaren zenbait ondorio eta nire balorazioa eta hausnarketa eman ditut.

## 2. *ERRONKARIBARKO ETXEAK* (HAINBAT EGILE, 2018)

2018ko udaberrian argia ikusi zuen, azkenean, 2009. urtean hasi zen proiektu handi horrek. Ibilbide luzea egin du, eta dena ez da erraza izan; hala ere, denon pozerako, kalean da Erronkaribarko etxe-izenak biltzen dituen liburua.

Lehen esan bezala, proiektu horrekin 2009. urtean hasi ginen. Pirinioetako euskara teknikariek, etxe-izenek Pirinioetan zuten garrantziaz aspaldi ohartuak, elkarlanean hasia erabaki zuten. Garai horretan Lohitzune Nuin Amatria zen Erronkaribarko eta Zaraitzuko euskara teknikaria. Gainerako teknikariek batera, NUPEko Juan Karlos Lopez-Mugartza ikertzailearekin harremanetan jarri eta proiektua azaldu zioten. Azken hau lana gidatzeko eta koordinatzeko prest agertu zen eta, horretarako, orientazio-txosten bat prestatu zuen. Aipatu txostena Nafarroako Gobernuan erabiltzen dena da eta Izarbeibar eta Mañeruibarreko etxe-izenak biltzen dituen liburua egiteko ere baliatu zuen Mikel Belaskok (Hainbat egile, 2014, 14. or.). Ondoren, herri bakoitzerako arduradun baten bila hasi ziren. Arduradun bakoitzak bere herriko etxe guztien izenak bildu beharko zituen, aldaerak eta izen zaharrak barne. Honela, etxeen izen guztiak, lehenengo aldiz, dokumentatuta egon ziren, haien galera ekidituz eta erabilera sustatuz.

Erronkaribarri dagokionez, arduradunak honako hauek izan ziren: Josune Aznarez (Burgin), Ángel Mari Pérez (Bidankozen), Enrique Galán (Garden), Koldo Viñuales (Erronkarin), Félix eta Isabel Galetx (Urzainkin), Maitane Baqué (Izaban) eta Jone Alastuei (Uztarrozen).

Lana egin bitartean, orduko euskara teknikariak lana utzi behar izan zuen eta beste teknikari bat izendatu zuten: Maite Madoz Bañez. Arduradunok lanean jarraitu eta lana ongi egin genuen; hau da, izen guztiak jaso genituen. Hala ere, Euskara Zerbitzuak beste aldaketa bat jasan zuen: Dabid Lalana Salbotx izanen zen teknikari berria. Hainbeste aldaketa zela medio, egindako lan guztia tiradera batean gelditu zen, ahazturik, utzirik.

2014. urtean, arduradun horietako batzuen (Maite Madoz Bañez eta ni neu, batez ere) kemenari esker, lanari berrekin genion. Aurretik egindako guztia birpasatu, osatu, zuzendu, egokitu eta argitaratzeko prestatu genuen, Juan Karlos Lopez-Mugartza eta Dabid Lalanarekin batera, baita gainerako arduradunen laguntzarekin ere. Ez zen lan makala izan! Baina ederki egin genuen. Eta horra hor emaitza.

Lan horren garrantzia biltzen duen jakindurian datza. Ezaguna eta jakina da Erronkaribarren bizitza izugarri aldatu dela: gaur egun jende gutxi bizi da, urtean zehar etxe asko hutsik ikus ditzakegu, bizimodua ez da lehengo bezalakoa, ohiturak ere aldatu egin dira,... Liburu hau aspaldiko garai horren isla da. Bertan aurkituko dugu bizitzaz betetako ibar hori, non etxe guztiek haien historia, familia, ohiturak eta izenak zituzten. Askorentzat kontu hauek guztiak ezagunak izanen dira, haiek garai hori ezagutu zutelako, ziurrenik. Daturen bat edo beste falta dela ere esanen dute, agian, edo informazioaren bat osatu gabe dagoela. Dena dela, orain oinarria badugu, eta denon artean osatu genezake, irakurle guztien parte hartzearekin. Horretaz gain, liburuan jasotakoa ezaguna izango dutenek, liburua irakurrita, aro horretara itzultzeko aitzakia eta aukera izanen dute, gogoratzeko aukera. Beste askorentzat, aldiz, hauek kontu berriak izanen dira, bai gazteak direlako, bai ibarretik kanpo hazi direlako. Azken hauek, orain, haien ibarra eta bertako kontuak sakonki ezagutzeko aukera dute, baita bizimodu, ohitura eta etxe-izen horiek berreskuratzeko (eta, kasu batzutan, erabiltzeko) ere.

Ezin atal hau amaitu liburu hori, altxor hori, egiten lagundu duten guztiei eskerrak eman gabe. Izan ere, lan hori guztia egin ezean, azterketa hau ez litzateke posible izanen. Eskerrik asko, beraz, ikertzaile eta NUPEko Filologia eta Hizkuntzaren Departamentuko irakasle den Juan Karlos Lopez-Mugartzari, ikerketa-lanean parte hartzeagatik eta lan-

taldea antolatu eta gidatzeagatik. Eskerrik asko Euskarabideari, lana, bere osotasunean, birpasatzeagatik eta inprimatzen laguntzeagatik. Eskerrik asko ere Euskaltzaindiari, etxe-izen guztiak birpasatzeagatik. Eskerrik asko Erronkaribarko Batzorde Nagusiari, argitaratzeagatik. Eskerrik asko Erronkaribarko Euskara Zerbitzuari, eta batez ere Dabid Lalanari, koordinaketa-lana egiteagatik. Eta eskerrik asko arduradun guztiei eta Maite Madoz Bañez-i, nirekin batera burutu duten lan zoragarri hori egiteagatik.

### 3. ERRONKARIERA

Lehen esan dudan bezala, erronkaria Erronkaribarren hitz egiten zen euskalkia zen. Horregatik, gai hau jorratu ahal izateko euskalki hau zer zen eta zein ezaugarri zituen jakitea ezinbestekoa da.

#### 3.1. Definizioa

Erronkariko uskara (edo erronkaria) orain dela gutxi arte Erronkaribar osoan zehar hitz egiten zen euskalkia da. Louis Lucien Bonaparte printzearen arabera (berari buruz aurrerago hitz eginen dugu), hiru azpieuskalkitan banatuta zegoen: Bidankozeko hizkera, Urzainkiko hizkera eta Uztarrozeko hizkera. Bidankozeko hizkera Bidankozen, Burgin eta Garden hitz egiten zen; Urzainkikoa, Erronkarin eta Urzainkin; eta Uztarrozekoa, Izaban eta Uztarrozen. Hiru mintzamolde horiek ezberdintzeko arrazoirik sendoena hauxe izan zen: -u bukaera duten hitzak -a artikuluaekin elkartzerakoan emaitza ezberdina ematen zutela zonalde bakoitzean (buru + -a > *buriaua*, *burioa*, *buria*). Bestalde, Izabak eta Uztarrozek Zuberoarekin harreman estuagoa zuten, eta hori hizkeran islatu zen; Bidankozek, ordea, Zaraitzuekin, eta zaraitzueraren eragina pairatu zuen (Zuazo, 2003, 43-44. orr.).

#### 3.2. Ezaugarriak

Hiru azpieuskalkitan banatuta egon arren, eta hizkera bakoitzak berezko bereizgarri batzuk bazituen ere, euskalki bakarra zen eta hauexek ziren bere ezaugarririk garrantzitsuenak (Azkue, 1931, 207-406. orr.; Beloqui, Elosegui, Sansinenea de Elosegui & Michelena, 1953, 499-536. orr.; [www.euskarabidea.es](http://www.euskarabidea.es)):

- Aditz-izenak *-tan*-en bidez egiten ziren: *erraitan*, *egitan*.
- *Nork*, singularreko lehen pertsonan, adierazten zuen morfema *-d* edo *-r* zen: *dur/dud*.
- Geroaldia *-en* atzizkiak egiten zen, baita bokalez amaitzen zirenetan ere: *igarrien*.
- *Nora* kasua *-ara* zen: *mendiara*.
- *Norekin* kasua *-ki* zen: *aingurieki*.
- Erakusleek hasieran *k*- zuten: *keben*.
- Sonante baten atzean oklusiboak ez ziren ahostun egiten: *onki*.
- *Au* diptongoa *ai* egiten da batzuetan: *gaiza*.
- Hitz barrenean maiz galtzen zen bokal bat: *abras*.
- Gisa honetako asimilazio bokalikoak gertatzen ziren: *uturri* < *iturri*, hots: *i...u*, *e...u* > *u...u*: *gaztulu*.

- *ua-* hiatua *-ia, -ioa, -iua* ahoskatzen zen: *buria, burioa, buriuua*.
- *Jan, joan, jautsi*, eta antzeko hitzetan hasierako soinua *x-* zen: *xan, xoan, etab*.
- Bokalartereko *i* → *x* bilakatzen zen: *oxan*.
- *I-*ren → atzean ez zegoen palatalizaziorik: *ilarrainiara*.

### 3.3. Testigantzak

Erronkarieraren lehenengo testigantza 1569. urtekoa da. Urte horretan sorginkeria-prozesu bat eman zen Burgi herrian (Idoate, 1975, 225-276. orr.). Horren kariaz, emakume eta haur batzuk atxilotuak eta epaituak izan ziren. Iruñeko epaiketari haiek esandako esaldi hauek bildu zituzten:

«Arnega ecaquey Janguoycoaz, eta andre dona Mariaz eta aren semeaz, eta sancta ama, eta aytaz eta azcaci gucuez» (Magdalena Portaz).

«Aurrac, Arnega egquey Janguycoaz eta andre dona mariaz eta sqntu eta saynta gwuez eta andre dona mariaz eta santa Annac eztuey Aurric» (Catalina Boront, 7 urte).

«Amega egquey Jangucoaz eta andre dona mariaz eta saintu eta saintaez ama eta aytaez eta ascagiguguez» (Maria Garat, 9 urte).

«Aurrac arnega eqacuey janguycoaz eta andre dona mariaz eta saintu eta sainta gucuez eta aytaz amazeta ascari gucuez» (Maria Ezcaniz, 10 urte).

Bigarren testigantza Bonaparte printzearena da. Louis Lucien Bonapartek XIX. mendaren bigarren erdian euskara aztertzeari ekin zion. 1856tik 1869ra bost bidaia egin zituen Euskal Herrira eta hirugarrenean Erronkaribarren izan zen. Bidaia horien eta egindako ikerketen ondorioz, euskalkien lehenengo mapa egin zuen, 1863. urtean:



Argazki-oina: *Carte des sept provinces basques*, 1863. (Wikipedia).

Ikus dezakegun bezala, erronkaria eta zuberera euskalki bakartzat jo zituen. Erronkariko uskara ezagutu ahal izateko bi erronkariarren laguntza izan zuen: Mariano Mendigatxa eta Prudentzio Hualde bidankozetarrenak (Pagola, Iribar & Iribar, 1997, 8-9. orr.).

Hirugarrena 1884. urtekoa da: Julian Gayarre tenore ospetsuak bere izeba Juanari idatzitako gutuna (De Fagoaga, 1951, 12-14. orr.).

Barcelona 19 Diciembre 1884

Ene tia Juana maitia

Eugenia sin da (etorri da) arro ongui. Quemem gaude anisco ongui guciac eta ori (berori) nola dago?

Nain din (nai du) sin (rin, jin, etorri) cona (onera) ichasoaren ecustra? Anisco andia da, tia Juana.

Nai badu nie dud anisco deiru orentaco vidagearen pagateco quemengo ostatiaren pagataco. Eztu eguiten quemem ozic batrere, chatendegu quemem anisco ongui eta güero artan (artean, bertan) dugu iror nescache postretaco eta gazte eta pollit.

Ha! cer vizial! tia Juana maitia, amar urte chiquiago bagunu...

Gorainzi guzientaco eta piyco bat nescachi pollit erroncarico guziat.

JULIAN

Laugarrena Resurreccion Maria Azkue hizkuntzalariak bere hiztegirako (Azkue, 1984) jasotako hitzek osatzen dute. Honek euskalkitzat jo zuen erronkaria, zubereratik bereiziz.

Orditik aurrera, asko izan ziren erronkaria grabatu eta aztertu zuten hizkuntzalari eta gramatikariak<sup>1</sup>. Horietako batzuk Estornes anaiak izan ziren, erronkariarrak eta lan izugarria egin zutenak. Jose Estornesek 1968. urtean argitaratu zuen *Erronkariko uskara* izeneko gramatika (Estornés, 1968). Bernardo Estornesek, berriz, Erronkariko uskararen hiztegia, 1997.ean (Estornés, 1997).

### 3.4. Desagerpena

Azaldu bezala, euskara ibar guztian hitz egiten zen hizkuntza izan zen. Bizimodu aldaketak, baina, hizkuntza horren apurka-apurkako galera ekarri zuen. Gizonak ibarretik kanpo atera, almadiak eta artzaintza zirela kausa, eta gaztelera erabiltzen eta euskara baztertzen hasi ziren. Emakumeek eta umeek, ordea, luzaro eutsi zioten; halere, azkenean hauek ere alboratu zuten.

Bonaparteren mapan (1863) Burgin dagoeneko euskara galtzen hasia zela ikus dezakegu. Hauexek izan ziren erronkariarako azken hiztunak eta haien heriotza-datak, herriz herri (Lopez-Mugartza, 2008, 165-173. orr.):

- Bidankozen: Mariano Mendigatxa, 1918.
- Erronkarikoa 1969. urtean, gutxi gorabehera, hil zen.
- Urzainkin: Maria Ezker, 1974.
- Izaban, Antonia Anaut (azken euskaldun zaharra), 1976. urtean.

1 Pedro de Yrizar, Koldo Mitxelena, Koldo Artola eta Koldo Zuazo, besteak beste.



- Gardekoa, 80ko hamarkadan.
- Eta Uztarrozekoa, Erronkariko uskararen azken hiztuna, 1991. urtean. Fidela Bernat zen erronkaria ama-hizkuntza izan zuen azkena (Artola, 1991, 242-280. orr.; Artola, 2000, 487-512. orr.).

#### 4. ETXE-IZENAK

Euskal Herrian oso ohikoa da etxeek izena izatea; adibideak nonahi aurki ditzakegu. Nafarroan Aezkoan eta Zaraitzun ikusten ditugu, besteak beste, baita Erronkaribarreko herri guztietan ere. Etxeen izenen bidez, familiak izendatu egiten dira. Hori ezin garrantzitsuagoa da herriko bizimodurako, herritar bakoitza nondik datorren eta nolakoa izan daitekeen argitzen baitu etxearen izenak.

Ohitura hau aspalditik dator, baina, tamalez, azkenaldian galtzen ari da. Bizimodu-aldaketak herritar gehienak hirietara ekarri ditu eta herrien despobulatzea gertatzen ari da. Azken hau dela medio, etxeen izenak ez dira antzinean ziren bezain ezinbestekoak. Hala ere, usadio honi eutsi behar diogulakoan nago, geure nortasunaren isla baita. Ikus, bestela, 1596ko agiri honetan (Alli, 1989, 66-67. orr.; Idoate, 1977, 251-254. orr.) Erronkaribarreko etxei buruz adierazitakoa:

Item, asentaron por ordenanza y estatuto a los tiempos venideros observaderos, que por quanto que, como dicho esta, toda casa del valle de Roncal, de siempre aque se an tenido por casa y palacio de cabo de armeria, y por ventura de auerse muerto los naturales antiguos roncalese, cuya era la dicha calidad auian venido algunos estrangeros no hidalgos a la tal casa y querido lebantar linaje nuevo, sepultando y olvidando el linaje y nombre antiguo, de donde podía auer venido a perderse la noticia verdadera, y no es razon que la honra que con tanto trabajo y derramamiento de sangre, y servicios muy grandes y notables que hizieron ni su memoria se olvide, quisieron y asentaron por ordenanza, como dicho es, que toda y cualquiera casa de las siete villas del valle de Roncal, aya de tomar el renombre de la casa y no el suyo propio, aunque se case con hija de tal casa o lo adquiriera por testamento, donación, trueca o compra, y en todas sus cosas auctos y escripturas, asi judiciales como extrajudiciales, se aya de nombrar y firmar el renombre de la dicha casa, so la pena de los cincuenta ducados contenidos en la dicha union, aplicaderos la mitad para el Fisco de su Magd. por tal que haga valer lo susodicho y la otra mitad para dicha villa. Y ademas desto, no goce de vecindad ni sea admitido a ningun Ayuntamiento ni oficios.

Etxe-izenek jatorri ezberdinak dituzte (Lopez-Mugartzak egindako orientazio-txostena; Kasares, 2010; Salaberri & Zubiri, 2009, 819-830. orr.); azken hauen arabera sailkatuko ditut hurrengo atalean. Hauexek dira, bada:

- Pertsona-izenak: etxea eraiki edo bertan bizi izandako norbaiti erreferentzia egiten diotenak, hala ponte-izenak nola izen-abizenak.
- Hipokoristiko edo izen ttipiak: familia-hizkeran ematen diren ponte-izenen laburtze eta itxuraldaketak.
- Patronimikoak: familiaren abizenari dagozkionak.
- Izengoitiak: etxe-izenetatik sortu direnak eta lanbidea, gizarte-maila edo familiako norbaiten ezaugarriren bat adierazten dutenak.

- Toponimoak: etxearen kokalekuarekin zerikusia dutenak.
- Erabilera: zertarako balio duen edo zein erabilera izan duen argitzen dutenak.

Ikertzaile gehienek 6 multzo horietan sailkatu ohi dituzte etxe-izenak. Hala ere, beste bat gehitzeko beharrean ikusi dut neure burua: *Izen berriak* multzoa<sup>2</sup>, hain zuzen ere. Azken honetan jabeek etxeari jarritako izenak, asmatutakoak eta aurreko ezaugarriekin zerikusirik ez dutenak kausituko ditugu. Horrenbestez, zazpi izanen dira jatorria adierazteko erabiliko ditudan taldeak.

## 5. ERRONKARIERA ETA ERRONKARIBARKO ETXE-IZENAK

Ezer baino lehen, argitu nahiko nuke sailkapena egiterakoan *Erronkaribarko etxeak* (Hainbat egile, 2018) liburuan agertzen diren izen ofizialak baino ez ditudala aintzat hartu; hau da, etxeen gainerako izenak eta aldaerak ez ditugu artikulu honetan aurkituko. Lan polita eta interesgarria izanen litzateke, beste norbaitek, nahi izanez gero, egin lezakeena, lan hau oinarri eta abiapuntu hartuta.

Lan honen hasieran aipatu bezala, bada, atal honetan aurreko bi atalak elkartuta topatuko ditugu: erronkariera eta Erronkaribarko etxe-izenak. Izenak asko direnez, sailkapena herriz herri egitea erabaki dut, era horretan ulergarriagoa eta interesgarriagoa izanen delakoan. Ordenari dagokionez, lehenengo herria Burgi izanen da eta, azkenekoa, Uztarroze; hegoaldeetik iparraldera bidaiatuko dugu, beraz.

Ondoren, hurrengo orrialdeetan zer ikusi ahal izanen dugun azalduko dut.

– Lehenik eta behin, euskaldunak ez diren eta euskaldunak diren etxe-izenak (Salaberri, 2006, 871-894. orr.). Izena euskaraz eta gazteleraz emanda dutenak (horietako hizkuntzaren batean eta itzulpena, hain zuzen ere), euskalduntzat jo ditut. Bi izen ezberdin dituztenen kasuan, lehenengoa baino ez dut kontuan hartu. Izenik ez duten etxeak ere badira; horiek sailkatu gabe utzi ditut.

– Bigarrenik, etxe-izen euskaldunen sailkapena (aurretik aipatutakoez gain, Agud & Tovar, 1988-1994; Alvar, 1978, 251-300 orr.; Aurkenerena, 2016; Estornés, 1983, 215-229. orr.; Hainbat egile, 2007, 113-116. orr.; Iñigo, 2008, 282-307. orr.; Iribarren, 1952; Lopez-Mugartza, 2008, 523-543. orr.; Michelena, 1958, 335-364. orr.; Michelena, 1997; Mujika, 2012; Narbarte, 1997; Orduna, 2004, 211-278. orr.; Salaberri, 2008; www.bidankoze.net; www.euskaltzaindia.eus). Azken hau ez da beti lan erraza izan eta horrek buruhauste handiak ekarri dizkit. Aitzitik, denak euskaratik datozela ziurtatu dut eta bakoitza nire ustez egokiena den multzoan kokatu dut, asko multzo batean baino gehiagotan egon litezkeela jakin arren.

– Azkenik, ibar osoko etxe-izenen eta erronkarieraren arteko ikuspegi orokorra kausituko dugu, ondorioetan emango dudana.

Besterik gabe, hona hemen herriz herriko azterketa.

2 Erronkaribarko etxeen izenak biltzeko ekimenean ere, 2009. urtean, oikonimo berriak aipatu eta kontuan hartu ziren.

### 5.1. Burgi

Lehen esan bezala, Burgi da aztertuko dudan lehenengo herria. Etxe gehien duen bigarren herria da, 194 osotara, eta guztiek izena dute. Hauexek dira:

Abizanda	Dámaso	Iglesias
Abizanda	Delfín	Iñigo/Tablajero
Aguio	Delia	Irma
Alfonso Urzainki	Dionisio Lorente	Jacinto
Alfredo Ezker	Eguzki-lore	Joakintxo
Alpe	El Almadiero	Jon Txuri
Amabitxi	El Cartero	José Fuertes
Anaut	El Herrero	José Luis y Puri
Andreu	El Hojalatero	Josefa
Angelines y Teógenes	El Maestro	Juanapelaire
Antigua Casa del médico	El Molino - Errota	Juanatresa
Antoniapalikas	El pajar de Mañueliko	Juanazinza
Argia	El Portugués	Juanbabil
Arrano Beltza	Elizpe elkarte	Juanbronte
Arrotx	Emeteria	Juangrande/Moreno
Artika	Esparza	Juaniko
Aso	Estebankamin	Juanillo
Aierdi	Etxe txiker	Juanlaplaza
Aierra	Ezker	Juanrosildo
Aierra Originaria	Ezker etxea	Kukulazpi
Ayuntamiento/ Udaletxea	Fagotano	Kurrustidoia
Baiber	Fayanás	La Bicoca
Baines	Fillo	La Coja
Balbutxarra	Fructuoso	La Kukula
Baraze/Sabina	Ganare	Labari
Bautís	Ganbra	Larrea
Bertol/Larranbe	Garaialde	Las Madrileñas
Bidangoztar	Garate	Laspidea
Borro	Gardar	Laspidea II
Calvo	Gortari	Latxaro
Cantero	Gure txoko	León
Calero	Haitzarena	Ligia
Carpintero	Heliodoro	Llerri
Casas Lampérez	Hospitalero/Txinko	Lola y José Luis
Cerrajero	Huerto Txurrut	Longinos
Copas	Hurtado	Los Chilenos
Cristina y Juan Pablo	Ibaiondo	Los Pisos
Cristino	Iban y Maider	Lucio

Makollas	Pajar de Juaniko	Sacristán
Mantxains	Pajar de Miskala	Sergio
Mantxabel	Palikas	Severino
Mañueliko	Panadería Ezker Okindegia	Sigüesano
Marciana	Pantxa	Sofía
Mariagil	Paskualramon	Solera
Mariajuana	Paskel	Surio
Markusanz	Pedrarrotx	Tía Vicenta
Marrakos	Pedro Jesús y Elena – Luis	Tolón
Martisanz	Javier y Cristina	Torre Txiker
Mastuzarra	Pedro Mari y Mari Carmen	Torrea
Mastuzarra II	Pedroleon	Torrea/Ginda
Maio	Pedromonte	Txinko
Mendibe	Pelaire	Txoto
Mendigatxa	Petra etxea	Txurrut
Miguelángel	Petrotx	Urandi Landa-etxea
Milejo	Pilar y Juan Mari	Urrutia
Milejo II	Pisos de la plaza	Vicaría
Miskala	Plácida	Vicente
Modesto	Portalatín	Vitorina
Nagore	Quintín	Xarakio
Nagorenea	Rafa y Merche	Zapatero
Onpedro	Ramón	Zarrajero
Onpedro II	Ramón II	Zarrallero
Onroman	Rubén	Zati-berri
Pajar de Esparza	Rufinera	Zelai-erdi
Pajar de la Cerca	Rumbo	
	Rumbo-Larranbe	

(Josune Aznarezek bildutako oikonimoak)


#### Izen ez-euskaldunak:

Abizanda, Abizanda, Aguio, Anaut, Alpe, Andreu, Angelines y Teógenes, Antigua Casa del médico, Aso, Baiber, Baines, Bautis, Bertol/Larranbe, Calvo, Cantero, Calero, Carpintero, Casas Lampérez, Cerrajero, Copas, Cristina y Juan Pablo, Cristino, Dámaso, Delfín, Delia, Dionisio Lorente, El Almadiero, El Cartero, El Herrero, El Hojalatero, El Maestro, El Portugués, Emeteria, Estebankamin, Fagotano, Fayánas, Fillo, Fructuoso, Ganare, Heliodoro, Hospitalero/Txinko, Hurtado, Iglesias, Irma, Jacinto, José Fuertes, José Luis y Puri, Josefa, Juanapelaire, Juanbabil, Juangrande/Moreno, Juanillo, Juanlaplaza, Juanrosildo, La Bicoca, La Coja, Las Madrileñas, León, Ligia, Lola y José Luis, Longinos, Los Chilenos, Los Pisos, Lucio, Marciana, Mariagil,

Mariajuana, Markusanz, Martisanz, Maio, Miguelángel, Milejo II, Milejo, Modesto, Pajar de la Cerca, Paskualramon, Paskel, Pedro Jesús y Elena – Luis Javier y Cristina, Pedro Mari y Mari Carmen, Pedroleon, Pedromonte, Pelaire, Pilar y Juan Mari, Pisos de la plaza, Plácida, Portalatín, Quintín, Rafa y Merche, Ramón, Ramón II, Rubén, Rufinera, Rumbo, Sacristán, Sergio, Severino, Sigüesano, Sofía, Solera, Surio, Tía Vicenta, Tolón, Txoto, Vicaría, Vicente, Vitorina, Zapatero, Zarrajero, Zarrallero.

Izen euskaldunak:

Alfonso Urzainki, Alfredo Ezker, Amabitxi, Argia, Arrano Beltza, Arrotx, Artika, Aierdi, Aierra, Aierra Originaria, Antoniapalikas, Ayuntamiento/Udaletxea, Balbutxarra, Baraze/Sabina, Bidangoztar, Borro, Eguzki-lore, El molino-Errota, El pajar de Mañueliko, Elizpe elkarte, Esparza, Etxe txiker, Ezker, Ezker etxea, Ganbra, Garaialde, Garate, Gardar, Gortari, Gure txoko, Haitzarena, Huerto Txurrut, Ibaiondo, Iban y Maider, Iñigo/Tablajero, Joakintxo, Jon Txuri, Juanatresa, Juanazinza, Juanbronte, Juaniko, Kukulazpi, Kurrustidoia, La Kukula, Labari, Larrea, Laspidea, Laspidea II, Latxaro, Llerri, Makollas, Mantxabel, Mantxains, Mañueliko, Marrakos, Mastuzarra II, Mastuzarra, Mendibe, Mendigatxa, Miskala, Nagore, Nagorenea, Onpedro, Onpedro II, Onroman, Pajar de Esparza, Pajar de Miskala, Pajar de Juaniko, Palikas, Panadería Ezker Okindegia, Pantxa, Pedrarrotx, Petra etxea, Petrotx, Rumbo-Larranbe, Torre Txiker, Torrea, Torrea/Ginda, Txinko, Txurrut, Urandi Landa-etxea, Urrutia, Xarakio, Zati-berri, Zelai-erdi.




Grafikoan ikus dezakegun bezala, Burgin izen ez-euskaldunak dira nagusi (109), nahiz eta euskarazkoak ere asko diren (85).

Burgiko izen euskaldunen sailkapena:

- Pertsona-izenak: Alfonso Urzainki, Alfredo Ezker, Iban y Maider, Juanatresa, Juanazinza, Juanbronte, Onpedro, Onpedro II, Onroman, Pedrarrotx.

- Hipokoristiko edo izen ttipiak: El pajar de Mañueliko, Iñigo/Tablajero, Joakintxo, Juaniko, Latxaro, Mantxabel, Mañueliko, Pantxa, Pajar de Juaniko, Xarakio.
- Patronimikoak: Aierdi, Aiera, Aiera Originaria, Arrotx, Artika, Baraze/Sabina, Esparza, Ezker, Ganbra, Garate, Gortari, Labari, Larrea, Laspidea, Laspidea II, Mantxains, Mendibe, Mendigatxa, Nagore, Pajar de Esparza, Panadería Ezker Okindegia, Petrotx, Rumbo-Larranbe, Torrea, Torrea/Ginda, Urrutia.
- Izengoitiak: Antoniapalikas, Balbutxarra, Bidangoztar, Borro, Gardar, Huerto Txurru, Llerri, Makollas, Marrakos, Mastuzarra II, Mastuzarra, Miskala, Pajar de Miskala, Palikas, Txinko, Txurru.
- Toponimoak: Elizpe elkarte, Haitzarena, Ibaiondo, Kukulazpi, La Kukula, Zelai-erdi.
- Erabilerak: Ayuntamiento/Udaletxea, El molino- Errota.
- Izen berriak: Amabitxi, Argia, Arrano Beltza, Eguzki-lore, Etxe txiker, Ezker etxea, Garaialde, Gure-txoko, Jon Txuri, Kurrustidoia, Nagorenea, Petra etxea, Torre txiker, Urandi Landa-etxea, Zati-berri.



Burgiko izen euskaldunen artean multzorik handiena patronimikoa da (hau da, abizenetatik eratorritakoa): 85 izenetatik 26.

## 5.2. Bidankoze

Bigarren herria Bidankoze da. Herri honek 80 etxe ditu; horregatik, bigarren herririk txikiena da. Hauexek dira bertako etxeak:

Aizagar	Jimeno	Nabarro
Algarra	Josémaría	Ornat
Antxon	Juanko	Pantxo
Arbizu	Kostioli	Paskel
Arguedas	Kurllo	Paxapan
Aristu	La Santa	Pelaire
Arlla	Labari	Pelairea
Arriola	Landa	Peña
Ayuntamiento-Escuela	Landarna	Peñeta
Azkue Enea	Landeta	Pexenena
Bagurrinetxea	Largotena	Rakax
Bilizar	Larranbe	Refelna
Bomba	Lengorna	Remendia
Calderero	Lengorna vieja	Salbotx
Casa de la villa vieja	Lixalte	Santxena
Danielna	Mailusa/Santos	Secretario/Sorginzulo
Diego	Maisterra	Txantxolit/Casero
Elizalde	Maizena	Txestas
Elizarena	Makurra	Txikiborda
Ferniando	Malkorna	Txustxelena
Gaiarre	Matxin	Villa Dominica
Garro	Mendigatxa	Xapatero
Harretxe	Molena	Xereno
Horno	Molino	Xoko
Hualderna	Montesena	Zerioresna
Iriarte	Montxonena	Zinpintarna
Iturriondo	Mux	

(Ángel Mari Pérezek bildutako oikonimoak)


Izen ez-euskaldunak:

Ayuntamiento-Escuela, Bomba, Calderero, Casa de la villa vieja, Diego, Horno, Josémaría, La Santa, Molena, Molino, Nabarro, Paskel, Pelaire, Peña, Secretario/Sorginzulo, Villa Dominica.

Izen euskaldunak:

Aizagar, Algarra, Antxon, Arbizu, Arguedas, Aristu, Arlla, Arriola, Azkue Enea, Bagurrinetxea, Bilizar, Danielna, Elizalde, Elizarena, Ferniando, Gaiarre, Garro, Harretxe, Hualderna, Iriarte, Iturriondo, Jimeno, Juanko, Kostioli, Kurllo, Labari, Landa, Landarna, Landeta, Largotena, Larranbe, Lengorna, Lengorna vieja, Lixalte, Mailusa/Santos, Maisterra, Maizena, Makurra, Malkorna, Matxin, Mendigatxa,

Montesena, Montxonena, Mux, Ornat, Pantxo, Paxapan, Pelairea, Peñeta, Pexenena, Rakax, Refelna, Remendia, Salbotx, Santxena, Txantxolit/Casero, Txestas, Txikiborda, Txustxelena, Xapatero, Xereno, Xoko, Zerioresna, Zinpintarna.




Bidankozen izen euskaldunak nagusi dira (64); alde handiarekin, gainera (gaztelerazkoak 16 dira).

Bidankozeko izen euskaldunen sailkapena:

- Pertsona-izenak: Danielna, Pexenena, Refelna.
- Hipokoristiko edo izen ttipiak: Antxon, Ferniando, Mailusa/Santos, Pantxo.
- Patronimikoak: Aizagar, Algarra, Arbizu, Arguedas, Arlla, Arriola, Azkue Enea, Elizalde, Gaiarre, Garro, Hualderna, Iriarte, Jimeno, Juanko, Kostiol, Labari, Landa, Landarna, Largetena, Larranbe, Lengorna, Lengorna vieja, Lixalte, Maisterra, Maizena, Matxin, Mendigatxa, Montesena, Montxonena, Ornat, Paxapan, Pelairea, Salbotx, Santxena, Zerioresna.
- Izengoitiak: Aristu, Kurllo, Makurra, Mux, Txantxolit/Casero, Txestas, Xapatero, Xereno, Zinpintarna.
- Toponimoak: Bilizar, Elizarena, Iturriondo, Landeta, Malkorna, Peñeta, Rakax, Xoko.
- Erabilerak: ez dago.
- Izenberriak: Bagurrinetxea, Harretxe, Remendia, Txikiborda, Txustxelena.





Ezin argiago ikusten den bezala, patronimikoena da multzorik kopurutsuena. 35 dira abizenetatik datozen Bidankozeko etxe-izenak.

### 5.3. Garde

Hegoaldetik iparraldera joanez, hirugarren herria dugu Garde. Herri honek 115 etxe ditu orotara, baina horietako 21ek ez du izenik. Hori dela eta, hemen izena duten 94ak aztertuko ditut, beste horiek alde batera utziz. Hona hemen izena duten Gardeko etxeak:

Abadía	Burusuri	Gallant
Águeda	Casa Consistorial/ Udaletxea	García
Alguacil	Chalet Domeño	Garjon
Altapagaina	Chalet Letrao	Gilen
Anton	Corral Beltran	Gorrindo
Argonz	Dámaso	Hilarión
Artxet	El Ruso	Jauregi/La Gabina
Aznarez	Esparz	Juanalea
Baldomera	Ezker	Juandomingo
Baztan	Fuertes/Pelikotxorro	Juansoldao
Beltran	Gaiarre	Julianiko
Beltranberri	Galetx	Katalo
Biratx	Galindo	Katxao
Blasgorri/La Jerónima		Kutxatera

La Cesárea	Mendialde	Santxo
La Patricia	Miguelanbra	Sastre
Lamarka	Miguelón	Seisea
Laporta	Molinero	Surio
Letrao	Nabarro	Tablajero
Lorente	Ñarro	Tartamudo
Lutxarko/La Casilda	Orduna	Txabina
Mainate	Paquetero	Txandi
Maiskaro	Parra/del Herrero	Txargolo
Maisterra	Pasintxa	Txeso
Mandoma	Pato	Txikin
Manzanas	Pedrogüesa	Txisporenea
Marcelo	Pedrokat	Urbanización I
Mariaparra	Pedromanuel/Pedrokat	Urbanización II
Marrakos	Pelagallos	Urbanización III
Martin Ttipi	Petronila	Zapatero
Martintxo	Pollar	Zubiri
Matías	Santiagooznarez	


(Enrique Galánek bildutako oikonimoak)

#### Izen ez-euskaldunak:

Abadía, Águeda, Alguacil, Argonz, Artxet, Aznarez, Baldomera, Beltran, Chalet Domeño, Chalet Letrao, Corral Beltran, Dámaso, El Ruso, Fuertes/Pelikotxorro, Galindo, Gallant, Garjon, Gilen, Hilarión, Juanalea, Juandomingo, Juansoldao, Kutxatera, La Cesárea, La Patricia, Lamarka, Laporta, Letrao, Lorente, Manzanas, Marcelo, Mariaparra, Matías, Miguelón, Molinero, Nabarro, Paquetero, Parra/del Herrero, Pato, Pedrogüesa, Pedromanuel/Pedrokat, Pelagallos, Petronila, Pollar, Santiagooznarez, Sastre, Surio, Tablajero, Tartamudo, Txargolo, Txeso, Urbanización I, Urbanización II, Urbanización III, Zapatero.

#### Izen euskaldunak:


Altapagaina, Anton, Argonz, Baztan, Beltranberri, Biratx, Blasgorri/La Jerónima, Burusuri, Casa Consistorial/Udaletxea, Esparz, Ezker, Gaiarre, Galetx, García, Gorrindo, Jauregi/La Gabina, Julianiko, Katalo, Katxao, Lutxarko/La Casilda, Mainate, Maiskaro, Maisterra, Mandoma, Marrakos, Martin Ttipi, Martintxo, Mendialde, Miguelanbra, Ñarro, Orduna, Pasintxa, Pedrokat, Santxo, Seisea, Txabina, Txandi, Txikin, Txisporenea, Zubiri.



Garden etxe-izen ez-euskaldunak dira nagusi (55).

Gardeko izen euskaldunen sailkapena:

- Pertsona-izenak: Blasgorri/La Jerónima, Miguelanbra, Pedrokat, Santxo.
- Hipokoristiko edo izen tipiak: Anton, Julianiko, Martintxo, Pasintxa, Txabina.
- Patronimikoak: Esparz, Ezker, Gaiarre, Galetx, García, Gorrindo, Jauregi/La Gabina, Maisterra, Orduna, Txandi, Zubiri.
- Izengoitiak: Biratx, Burusuri, Katalo, Katxao, Lutzarko/La Casilda, Mainate, Maiskaro, Mandoma, Marrakos, Martin Ttipi, N̄arro, Txikin.
- Toponimoak: Seisea.
- Erabilerak: Casa Consistorial/Udaletxea.
- Izen berriak: Altapagaina, Baztan, Beltranberri, Mendialde, Txisporenea.



Herri honetan multzorik kopurutsuena izengoitiena da, 12 izenekin; hala eta guztiz ere, patronimikoak ere asko dira (11).

#### 5.4. Erronkari

Laugarrena Erronkari da. Etxe gehien dutenen artean hirugarrena da, 136 etxerekin. Hauexek dira:

Abacial	Donazar	Juanjulian
Aizpun	El Almendro	Juanmiguel Surio
Akerreta/Pina	El Bizco	Julianabuey
Allegre	El Cirujano	Karlos/Carlos
Anbustegi	El Rey	Katxao
Antxon	El Rojo	Kokorro
Aquilino	El Sordo	Kosme/Cosme
Arias	Erregia/Larregia	Kotxua
Ariz	Erronkariko Udaletxea/	Labiano
Arnaut	Ayuntamiento	Larrainondoa
Arreñume	Erronkaribarko etxea/	Lasaosa
Azpea	Casa del Valle	Lindiano
Axpuria/Harrigain	Errota/El Molino	Loitzeta
Aznarez	Estrada	López
Aznarezberri	Etxako	López
Barrena	Etxart	Macareno
Belio	Farmacia/ Centro de Salud	Maio/Sarries
Bertxo	Gallardo	Mantxo/Sotero
